

## Kostuen egitura

Gure enpresako kostuak, gehien bat, aldakorrak izango dira. Horrek ez du esan nahi ez ditugunik kostu finkoak edukiko. Gure kostu finkoak, lokalaren ordainketa eta langileen soldata izango da.

Beste aldetik, kostu aldakorrak daude, hauek gehien bat, arroparen erosketetatik, aplikazioaren hobekuntzetatik eta lokalaren erreformatatik iritsiko dira gehien bat.

Adibidez, marka batean, erosketa handi bat egitean, gure dirutik ordaindu beharko dugu, baina gero, diru hori errekueratuko dugu arroparen salmentarekin. Gainera, gure erosleei deskontuak egin ahal izango dizkiegu, horrela beraiek eta guk irabaziak lortuz.

Hasieran, prestamo handi bat eskatuko dugu, 20000€-koa gutxi gorabehera, baina pixkanaka pixkanaka, lortzen dugun diruarekin ordainduko dugu.

Lokalaren alokairua eta gure langileen soldatak ere ordaindu beharko dugu, eta zenbat denbora eta zer nolako lana egiten duzun arabera, soldata bat edo beste bat edukiko duzu.

Gainera gure irabazien arabera, langileen soldata handitu ahalko dugu eta horela beraiek ere anbizio gehiagorekin egingo dute lan, horren ondorioz, lan hobe egingo dute eta gure bezeroengan, fideltasuna lortzea saiaturako gara. Adibidez, gure enpresa ondo baldin badao, 1000 euroko soldata ordaindu beharrean, 1500 euroko soldata ordaintzen badugu, gure langileek, beraiek egindako esfortzuak, bere ondorioak dituela ikusiko dute, eta kasu honetan onak direla ikusiko dute. Ondorioz langile guztiek beraien lanean esfortzua egingo dute hobetu ahal izateko eta horrela gure aplikazioaren hobekuntza iritsiko da. Ondorioz, gure aplikazioaren izena ahoz aho joango da eta bezero gehiago lortuko ditugu, horrela diru gehiago lortuz.

Hasiera batean, arroparekin diru kantitate handia ez gastatzea pentsatu dugu, hasieran seguruenik inork ez duelako arroparik erosiko eta horrela, gure enpresaren hazkundera eta diru sarreretan enfokaturako gara. Adibidez, hasieran 20 kamiseta, 20 pare galtzerdi, 20 zapata pare... erosiko ditugu. Arropa hau saltzeak dirua emango digu eta arropa berriari gehiago gastatzeko eskubidea emango gaitu.

Horrez gain, lokalak erreforma bat edukitzerakotan, gastu gehigarri eta aldakorra izango da, gauza bera gertatuko da aplikazioak berrikuntzaren bat behar badu. Adibidez, gure lokala, txikia geratzen bazaigu, erreforma egin beharko dugu, dena hobeto jartzeko eta leku gehiago izateko, bestela, beste lokal bat erosteko aukera ere edukiko genukeen.

Aplikazioari buruz, saiaturako gara gauza berriak pixkanaka pixkanaka hobetzen eta gauza berriak sortzen, horretarako, seguruenik, kanpo laguntza beharko dugu eta nolako aldaketak egiten ditugunen arabera, honen kostuak handiagoak edo txikiagoak izan ahalko dira. Adibidez, gauza asko edo programatzeko zailak baldin badira, honen gastuak handitu egingo dira. Honetaz gain, marketina, aplikazioaren mantenua eta aplikazioaren sorrera kanpoko enpresa batzuek egingo dute. Horregatik, hauei ordaindu egin beharko zaie beraien laguntzarengatik.

Baita ere aipatu beharra dago arropa salduko dugunez, garraio-enpresa bat behar dela. Hortaz, garraio-enpresa hau kontratatzeke ordaindu beharko diegu. Hasieran, Espainia mailan izango dira bakarrik gastuak, horregatik, ez dira oso gastu handiak izango.

Hau guztian oinarrituta, esan dezakegu, gure kostuak gehien bat aldakorrak izango direla, baina ere kostu finkoak izango ditugula.